



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

I. OINARRI OROKORRAK

1. Artikulua. Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea Ermua Hiriko Udalari dagozkion zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak kudeatu, bildu, zehatu eta ikuskatzeko prozedurak arautzea da.

Artículo 2. Lege-araubidea

1. Zuzenbide publikoko zergen eta gainerako diru-sarriren kudeaketa, bilketa, zigorra eta ikuskapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak arautuko ditu, Tokiko Ogasunen Foru Arauan, zerga bakoitzaren Ordenantza Fiskaletan eta Udal Ordenantza honetan aurreikusitako berezitasunekin. Han aurreikusita ez dagoen guztian Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenean emandako foru-xedapenak aplikatuko dira.

2. Alkateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskaletan, baldin eta bakarrik nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketan ondorio badira eta baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea badakarte. Aldaketa horiek berariaz adieraziko dira, eta berehala emango zaio horren berri osoko bilkurari, berrets dezan.

3. Artikulua. Aplikazio-eremua

1. Ordenantza hau indarrean jartzen den momentutik aurrera Ermuko udalerri osoan aplikatuko da, berau indargabetu edo aldatu arte.

2. Udal honi dagozkion zuzenbide publikoko diru-sarriren ikuskapenak eta bilketak udalerriaren eremutik kanpo egin behar badira, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan egiteko eskumena dauka udal honek. Gainerako kasuetan egun ezarrita dauden edo etorkizunean ezarri daitezkeen lankidetzak-formulei jarraituz egingo dira.

4. Artikulua. Diru-bilketa organoak

A) Alkatetzaren eskumenak

- Erakunde-lankide izaerako baimenak.
- Likidazioen onespina eta deuseztapena.
- Bermeak onartzeko ebazpenak.
- Bermeak betearazteko ebazpenak.

•Borondatezko zein derrigorrezko epeetako errolda fiskal, likidazio eta ordainagirien kontrako berraztertze-helegiteen ebazpenak.

•Zor ez diren ordainagiriak itzultzeko ebazpenak.

•Onura fiskalen aitorpena.

•Ordainketak espezieetan egiteko onespenak.

•Legearen arabera beste organo batzuei ez dagozkien funtzio oro.

B) Diruzaintza

•Premiamenduzko aginduak.

•Herri erakundeen kredituen ofiziozko konpentsazioa.

•Hutseginen eta kreditu kobraezinen aitorpena.

•Eskudiruzko kobrantzak.

•Zorrak geroratu edo zatika ordaintzeari buruzko ebazpenak ematea.

•Diru-bilketaren kudeaketan berraztertze-helegiteen ebazpena ematea.

•Ofiziozko eta interesdunak eskatutako konpentsazioetarako ebazpenak ematea.

•Sarrera bidegabeak, bikoiztuak edo gehiegizkoak itzultzeko prozedura hastea.

5. Artikulua. Zergadunarentzako arreta

•1. Zerga-betebeharren titularrak NANarekin edo behar bezala baimendutako pertsonak zerga, horiek nola egiten diren, nola jakinarazten diren, ordenantza fiskal, kanpo-ezaugarrien egiaztagiri eta abarri buruzko informazioa eska dezketen Abiapuntu bulegoan; halaber kanpo-ezaugarrien ziurtagiriak, ordaintzeke diren zorren ziurtagiriak, zergen helbideratzeak eta ordainketa-agirien bikoiztuak izapidetu ditzake bulego horretan bertan.

•2. Zerga-betebeharren titularren ordezkaritza-baimenak idatziz egin beharko dira, data eta titularren sinadura jasoz, eta bere NANaren kopia erantsita daramatela. Baimen hori espedienteari erantsiko zaio

•3. Halaber, edozein pertsona fisiko zein juridikok, publiko edo pribatuk, derrigorrez eman beharko dizkio zerga-administrazioari zerga-eragina duten ekonomi-jardueren inguruko datu, txosten edo aurrekari guztiak.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

6. Artikulua. IFZren derrigortasuna

Zergadun oro bere Identifikazio fiskaleko zenbakiarekin identifikatuta joango da bulegoetara. Betebehar berbera dute ondasun-erkidego, jabeen erkidego, jaraunspen jasogabe eta nortasun juridikorik ez baina zerga-betebeharrak dituzten gainerako entitate guztiek ere, hala ezartzen baitu Zergazko Foru Arau Orokorrak. Adingabeek beraien IFZ propioa edo beraien legezko ordezkariena eduki dezakete. Bestalde, atzerritarrak beraien bizileku-txartel edo pasaportearen bitartez identifikatuko dira.

7. Artikulua. Kudeaketa

1. Foru arauetan ezarritakoari jarraituz, Ermua Hiriko Udalak, bere zergei dagokienean, onura fiskalak eman ditzake bere aurrekontuetan zordunduz, beti ere onuradun izan daitezkeen haiek beraien zerga-betebeharrak egunean badituzte.

2. Ongintza-erakundeek, ongintzako helburuekin zuzenean lotutako aprobetxamenduengatik, nahiz eta lizentzia eskatu behar duten, ez dute tasa ordaindu beharrik izango:

3. Lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergaren, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kasuetan ez da ordainagiri edo zerga-likidaziorik egin beharrik izango ordaindu beharrekoa 6 € baino gutxiago denean.

8. Artikulua. Ordainketa-aldiak

1. Zorrek borondatezko aldian edo aldi exekutiboan bildu ahal izango dira.

2. Borondatez ordaintzeko epea oraindik zorra guztiz ordaindu gabe dagoenean betetzen bada, aldi exekutiboari automatikoki emango zaio hasiera, ordaintzeko dagoen zorrarengatik.

3. Aldi exekutiboaren hasierak aldi horri dagozkion berandutza-interesak eta errekaruak eskatu beharra sortuko du, eta hala denean, premiamendu-prozeduraren kostuak.

4. Berandutza-interesa zerga ordaindu behar den aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesari ehuneko 25 gehituz kalkulatu da, beste ehunekoren bat ezartzen ez bada.

Zerga-zorrek ez direnei diruaren legezko interes-mota aplikatuko zaie.

5. Berandutza-interesak aldi exekutiboa hastean sortuko dira, premiamendu-baimena eman eta berori jakinarazten den dataren ondorengo hilabetera arte iragan den denborarenak salbu, aldi horretan ordaindutako kopuruei dagozkienak.

6. Errekargu exekutiboa, ehuneko 5ekoa izango dena, automatikoki sortuko da zerga-zor izan ala ez izan eta aldi exekutiboaren hasieratik eskatu ahal izango da.

7. Premiamendu-baimena jakinarazita, zerga-zorra izan zein ez izan ordaintzeko jakinarazpena egin eta hilabeteko epea iragan denean ehuneko 20ko premiamendu-errekargua eskatuko da.

9. Artikulua. Epeen zenbaketa

1. Besterik adierazten ez bada, epeak egunetan zenbatzen badira, lanegunak direla ulertu beharko da, igandeak eta jai-egunak ez dira zenbatuko.

Epeak egun naturaletan zenbatuko badira, espresuki aipatuko da jakinarazpenean.

2. Egunetan adierazitako epeak kasuan kasuko egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharmunetik aurrera hasiko dira zenbatzen, edo administrazioaren ixiltasunaren ondoriozko onarpenera edo gaitzespena sortu eta biharmunetik aurrera.

3. Epea hilabetetan edo urtetan zenbatzen bada, kasuan kasuko egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharmunetik aurrera zenbatuko da epea edo bestela administrazioaren ixiltasunagatik onarpenera edo gaitzespena sortu eta biharmunetik aurrera. Epea betetzen den hilabetean zenbaketa hasten den egunaren baliokiderik ez balego, epea hilaren azken egunean emango da amaitutzat.

4. Epearen azken eguna baliogabea bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

10. Artikulua. Helbide fiskala

1. Ordaintzeko betebeharra duen haren udal ogasunarekiko harremanetarako kokalekua da helbide fiskala eta Zergazko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 47an araututa dago.

2. Zergazko Foru Arau Orokorrean araututakoaren arabera, diru-bilketarako orokorrean ondorengoa izango da helbide fiskala:

a) Pertsona fisikoen kasuan, ohiko bizilekuaren helbidea.

b) Pertsona juridikoen kasuan, helbide soziala.

3. Ordaintzeko betebeharra duenak beste helbideren bat ere aukeratu dezake, berea edo bere ordezkariarena, administrazioaren jakinarazpenak jasotzeko.

4. Nolanahi ere, ordaintzeko betebeharra daukatenean behartuta daude helbide-aldaketak eta udal ogasunetik bidalitako komunikazioetan ikusten dituzten akatsak adieraztera. Halakoak espresuki komunikatu behar dira, eta helbidearen aldaketak ez du udal ogasunean eraginik izango aipaturiko adierazpen espresua aurkeztu ez arte.

Beste administrazio-helburu batzuetarako, biztanle-errola adibidez, helbide-aldaketa adierazi izanak ez du helbide fiskalaren aldaketa espresuki adierazteko betebeharra ordeztzen.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

5. Udal ogasunak jakiten duenean ordaintzeko betebeharra duenaren helbidea ez dela datu-baseetan daukana eta helbide horretan ez duela jakinarazpenik jasotzen, dagozkion egiaztapenak egin eta aldatu egin dezake bere datuetan duen helbide fiskala, ordaintzeko beharra duenari lotutako kudeaketa-elementu bezala erantsiz, eta berori izango da aurrerantzean zerga-bilketaren inguruko jakinarazpen guztiak bidaltzeko helbidea.

6. Erabat baliozkoa izango da orokorrean, ordaintzeko beharra duenaren jarduerak duen helbidera bidalitako jakinarazpena, edo zergazko izaera edo izaera publikoa duen beste baliabide batzuren inguruko dokumentu baten jasotako helbidera bidalitakoa.

11. Artikulua. Zega-bilketa gaietako jakinarazpenak

1. Zergak ordaindu behar dituenari bidaltzeko jakinarazpenen erregimena administrazio-arau orokorretan ezarritakoa izango da, Zergazko Foru Arau Orokorrean eta honako ordenantzan ezarritako berezitasunak izanik.

2. Jakinarazpenak egiteko tokia

a) Interesdunaren eskariz hasitako prozeduren kasuan jakinarazpena zerga ordaintzeko betebeharra duenak edo bere ordezkariak adierazi duen lekuan egingo da, edo horren faltan, bataren zein bestearen helbide fiskalean.

b) Ofizioz hasitako prozeduren kasuan zerga ordaintzeko betebeharra duenaren edo bere ordezkariaren helbide fiskalean, lantokian, ekonomi jarduera dagoen lekuan edo interesdunak edo ordezkariak jakinarazten den egintza hartu dela jasota geratzea ahalbidetzen duen beste edozein tokitan egingo da jakinarazpena.

3. Jakinarazpenak hartzeko legitimotasuna nork duen: jakinarazpena zerga ordaintzeko betebeharra duenaren edo bere ordezkariak adierazitako lekuan edo bata zein bestearen helbide fiskalean egiten denean, bera bertan ez badago, entregatzerakoan bertan den edozein pertsonak har dezake, bere nortasuna adierazten badu. Jakinarazpenetarako adierazi den tokiko edo betebeharra duena edo bere ordezkariaren helbide fiskaleko auzokide zein jabe erkidegoko langileek ere jaso dezakete.

Interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpena onartzen ez badu ere, berori egintzat emango da legezko ondorio guztietarako.

4. Bertaratuta egindako jakinarazpenak

a) Zerga ordaindu beharra duenari edo bere ordezkariari jakinarazpenik egin ezin bazaio administraziori ezin lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, eta helbide fiskalera edo interesdunak adierazitako helbidera bidaltzen bi aldiz gutxienez saiatu ostean (interesdunaren eskariz hasitako prozedurak direnean), edo behin bakarrik hartzailea helbide eta leku horretan ezezaguna bada, bertaratzeko deia egingo zaie ordaintzeko betebeharra duenari edo bere ordezkariari, jakinarazpena bertaratuta egin ahal izateko. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean interesun bakoitzarentzat behin bakarrik argitaratuko den iragarkiaren bitartez egingo da deia.

b) Argitalpenean ondorengo datuak azalduko dira: egiteke geratu diren jakinarazpenen zerrenda, ordaintzeko betebeharra duenaren izena edo ordezkariarena, jakinarazpenaren kontzeptua edo prozedura, izapiedeak egingo dituen organoa eta bertaratzeko leku-epeak.

c) Adierazitakoaren arabera egindako jarduketa guztiak espedientean jasoko dira, bai eta jakinarazpena egiteko adierazi den helbidean entregatzea eragotzi duen edozein inguruabar ere.

d) Bertaratu beharraren kasuan, hamabost eguneko epean bertaratu beharko da. Epea bertaratu gabe iragaiten bada, epea bete eta biharamunetik aurrera jainarazpena egintzat emango da legezko ondorio guztietarako.

12. Artikulua. Errolda

1. Egitate zergagarriak jarraitutasuna badauka errolda bat sortuko da, interesdunen aitorpenetan, udal honek dituen datuetan eta egindako ikuskapenetan oinarrituta.

Erroldak alkatetzak onartu beharko ditu urtero-urtero eta 15 eguneko jendaurreko erakustaldia izango da dagokien zergadunek erroldok aztertu eta, kasua bada, behar diren erreklamazioak aurkez ditzaten.

2. Errolda fiskalen kontra berraztertze-helegiteak aurkez dakizkioke alkatetzari jendaurreko erakustaldia amaitu eta hilabeteko epean, beti ere foru arauak eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak arautzen dituzten ordenantzek aurreikusitakoaren kalterik gabe.

3. Errolda horretako alta subjektu pasiboak emateagatik edo administrazioaren ikerketa-jarduerarengatik sortuko da, eta indarra izango du zergaren ordenantzak ezarritakoaren arabera zerga ordaindu beharra sortzen den datatik aurrera. Halaber, behin betikotasunez erantsiko dira hurrengo aldiko erroldan.

Baja subjektu pasiboek eurek eman beharko dute eta, administrazioak behin egiaztatu ondoren, behin betiko ezabatuko dira erroldatik, Bajak berori aurkeztu eta ondorengo kobrantza-alditik aurrera izango du indarra, ordenantza bakoitzean ezarritako salbuespen-kasuetan izan ezik.

13. Artikulua. Kobratzeko egutegia

Oro har, Udalak honako egutegi hau ezartzen du diru-sarrera publikoak kobratzeko.

KONTZEPTUA	ONARPENA	JENDAURREKO ERAKUSKETA	BORONDATEZKO ORDAINKETA
Trakzio Mekanikoko lbilgailuen gaineko zerga	Alkatetzaren Dekretua	martxoaren 2tik 20ra	Apirilaren 22tik maiatzaren 22ra
Autotaxiak	Alkatetzaren Dekretua	martxoaren 2tik 20ra	Apirilaren 22tik maiatzaren 22ra
Mahaiak eta aulkiak	Alkatetzaren Dekretua	Otsailaren 9tik 27ra	Martxoaren 18tik apirilaren 17ra



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

KONTZEPTUA	ONARPENA	JENDAURREKO ERAKUSKETA	BORONDATEZKO ORDAINKETA
Ibiak	Alkatetzaren Dekretua	Apirilaren 24tik maiatzaren 15era	Maiatzaren 20tik ekainaren 19ra
Kutxazain automatikoak	Alkatetzaren Dekretua	Apirilaren 24tik maiatzaren 15era	Maiatzaren 20tik ekainaren 19ra
Udal Azoka Ostiraleko Azoko	Alkatetzaren Dekretua		
1. hiruhilekoa		urtarrilaren 12tik 30era	Otsailaren 4tik martxoaren 6ra
2. hiruhilekoa		Apirilaren 13tik maiatzaren 4ra	Maiatzaren 6tik ekainaren 5era
3. hiruhilekoa		Uztailaren 6tik 24ra	Abuztuaren 26tik irailaren 25era
4. hiruhilekoa		urriaren 2tik 23ra	Azaroaren 4tik abenduaren 4ra

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kasuan Bizkaiko Foru Aldundiak ezarriko du horiek kobratzeko epea.

Zaborrak jaso eta deuseztatzeagatik 6. ordenantzari dagozkion tasak Gipuzkoako Ur Partzuergoak ezarritako datetan kobratuko dira uren ziklo integralari dagozkion tasekin batera.

II. ZORRAREN IRAUNGIPENA

14. Artikulua. Zorraren iraungipena

1. Ordainketa, kasuaren arabera, ondoren zehaztutako lekuetan egin beharko da:

- Abiapuntu bulegoan.

- Aurrez aurre edo banka elektronikoaren bidez, ordainketa-gutunean adierazitako erakunde laguntzaileetan.

- Internet bidez, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidean, zuzenean edo udalaren webgunetik sartuta.

2. Zorrek ordaintzeko epea ondorengoak izango da:

- Autolikidazioen kasuan zerga bakoitzaren ordenantzan ezarritakoa.

- Administrazioak eginiko likidazioen kasuan eta ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskabide bat ukatzeagatik, interesdunak eskatutakoa konpentsatzeagatik eta zorren ordainetan edo zerga-bilketa prozeduraren etendura kasuetan ondasunak edo eskubideak emateagatik exijitu daitezkeen likidazioen kasuan, hilabeteko epea egongo da, beti ere jakinarazpenaren datatik aurrera zenbatuta.

- Ordainarazteko epea hasi eta premiamendu agindua jakinarazi ondoren, zorra hilabeteko epean ordaindu beharko da, jakinarazpena jasotzen den datatik aurrera zenbatuko delarik epea.

•Jakinarazpen kolektiboko aldizkako zorrak ordaintzeko epea honako ordenantzaren 137. artikuluan ezarritakoa izango da.

15. Artikulua. Ordaintzeko moduak

Zorren ordainketa ondoren zehazten direnetako moduren batean egingo da:

a)Legezko dirua.

b)Kreditu- eta zordunketa-txartelak

c)Internet, Eusko Jaurlaritzaren Ordainketa Pasabidearen bidez.

d)Udaleko Diruzaintzak kasu bakoitzean zehazten duen kontu-zenbakira egindako banku-transferentzia.

e)Posta bidezko igorpena

f)Txkeka

Txekeak merkataritza-legeriak ezartzen dituen baldintzak bete beharko ditu. Hona baldintzok zein diren:

•Udalaren izenean egotea.

•Sinaduraren azpian igorlearen izena edo izen soziala argi eta garbi adierazita egotea.

•Txkeka adostuta edo moduz eta epez jaulkita egotea.

g) Banku-helbideratzea honako baldintza hauek betez egin beharko da:

•Udalari aldeztu aurretik eskatzea. Horretarako, ordainketa-gune bakarreko Europako edozein finantza-erakunderen «SEPA zuzeneko zordunketa bankuan helbideratzeko agindua» bete beharko da.

•Ordaintzeko obligazioa duen pertsona edo erakundea ordainketa helbideratuta dagoen kontuaren titularra izatea. Salbuespen gisa, Udalak beste titular bat onartu ahal izango du, ordaintzeko obligazioa duenak helbideratze hori berariaz baimentzen badu.

•Ordainketen helbideratzeak denbora mugagabek balioko du, baina zergadunak nahi izanez gero baliogabetu edo beste banku-erakunde batera alda ditzake edozein momentutan, beti ere baliogaberen barruan Udalari abisatuta.

Udalak jaulkitako ordainagiriak borondatezko epearen lehenengo bost egunetan zordunduko dira.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

•Zerga-gai bat, gehiago edo guztiak helbideratu daitezke, aldizkako mugaegunekoa eta jakinarazpen kolektibokoa bada.

•Udalak ezeztatu egin dezake, helbideratzea, helbideratutako kontuan dirurik ez egoteagatik ordainagiriak itzuli badira.

•Udalak unean-unean ezarriko du zein izango den helbideratze-eskabideak onartzeko azken eguna eta noiztik aurrera izango den eraginkorra helbideratze-eskabidea.

Salbuespenez bada ere, Udalak, borondatezko aldian zein exekutiboan, zergaren zorra espezietan ordaintzea onar dezake, horretarako eskubide bat entregatu beharko delarik.

III. ORDAINKETA GERORATU EDO ZATIKATZEA

16. Artikulua. Ordainketa geroratu edo zatikatzea

1. Zerga-zorren eta zuzenbide publikoko gainerakoen ordainketa geroratu edo zatikatu egin daiteke, hala ezarrita baitago Zergazko Foru Arau Orokorraren 63 artikuluan eta honako ordenantzan.

2. Ordainketaren gerorapena edo zatikapena borondatezko aldian zein aldi exekutiboan egin daiteke.

3. Ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskabideak Abiapuntu bulegoan aurkeztuko dira. Eskatera horien ebazpena 4. artikuluan ezarritako zenbatekoaren arabera izango da.

Ordaindu beharrekoa 150 € baino gutxiago bada ez da, orokorrean, geroratzerik onartuko, salbuespenezko kasietan salbu. Kasu horiek organo eskudunak baloratuko ditu, gero erabakitzeko.

Borondatezko alditik aurrera geroratutako zenbatekoek berandutza-interesak sortuko dituzte gerorapenaren denbora-tarte horretan. Zatikapenaren kasuan berandutza-interesak zati bakoitzaren arabera kalkulatu dira.

17. Artikulua. Onartzeko irizpideak

Ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskabidea onartzeko irizpide orokorrak ondorengoak dira:

a) 150,00 € edo hortik gorako zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira, ordaintzeko betebeharra duenak eskatuta.

b) Epeei dagokienez:

6.000,00 € baino zor txikiagoak 12 hilabetez geroratu edo zatikatu ahal izango dira gehienez ere.

Zorraren zenbatekoa 6.000,00 € baino handiagoa bada 18 hilabetera arte geroratu edo zatikatu daiteke ordainketa.

c) Zatikapenetan hilabetekoak izango dira ordainketak egiteko epeak.

d) Ordaindu beharreko zenbatekoak 50,00 €koak izango dira gutxienez.

18. Artikulua. Gerorapen-eskaeraren ondorioak

1. Ordainketa geroratzeko eskaera borondatezko aldian aurkezten bada, aldi horren amaieran erabakirik ez badago atzeratu egingo da aldi exekutiboaren hasiera, beharrezkoak diren kautela-neurriak hatzeari utzi gabe.

2. Ordainketa geroratzeko eskaria aldi exekutiboan aurkezten bada zerga-bilketa prozedura ez da etengo eta exijituko den gainkargua aldi exekutiboari dagokiona izango da.

19. Artikulua. Bermeak

1. Eskatzaileak kreditu-erakunde edo elkarren bermerako sozietatearen abal solidario bidezko bermea eskainiko du, edo kauzio-asugurua edukitzearen egiaztagiria.

2. Bermeak tronkoa eta berandutza interesak aseguratuko ditu, eta horien bien batuketaren 100eko 25 gehiago.

3. Orokorrean, ordainketa geroratu edo zatikatzeko, ordaintzeko guztira geratzen den zenbatekoa 3.000,00 € baino txikiagoa bada, zordunari ez zaio bermerik eskatuko.

20. Artikulua. Eskaera

Ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskabidea Abiapuntu bulegoan aurkeztuko da.

Geroratze- edo zatikatze-eskariak ondorengo datuak edukiko ditu:

a) Izena eta abizenak, izen soziala edo deitura, identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzailearen helbide fiskala, eta edukiz gero ordezkariarena, telefonoa eta, hala denean, posta elektronikoa.

b) Geroratu edo zatikatzeko eskatzen den zorra. Eskaerak osorik hartu beharko du aldi exekutiboko zorraren zenbatekoa.

c) Eskatzen diren geroratze- edo zatikatze- epeak eta baldintzak.

d) Eskaeraren zergatiak.

e) Zorra 3.000,00 € baino handiagoa bada, berorren nahikoa beme..

f) Eskaera aurkeztu den lekua, data eta eskatzailearen sinadura.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

Bermea osorik edo zati bat aurkeztu beharretik salbu uzteko eskatzen denean ondorengo dokumentuak aurkeztuko dira gainera:

a) Pertsona fisikoen kasuan

- Ondasun nahikoa ez izatearen adierazpena.
- Nomina edo erakunde ordaintzaileak behar bezala egiaztatutako zirutagiria.
- Azken urteetako PFEZen aitortpena.
- Azken urteko banku-kontuko mugimenduak.

b) Pertsona juridikoak

- Ondasun nahikoa ez edukitzearen adierazpena.
- Azken urtealdietako kontuak eta. edukiz gero, ikuskaritza-txostena.
- Edukiz gero, bideragarritasun txostena eta ekonomi, finantza eta ondare ikuspegitik garrantzitsua izan daitekeen beste edozein informazio, ordainketaren georatze hori bete egingo dela frogatzen duenean.

21. Artikulua. Ebazpena

1. Ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak bi hilabeteko epean gehienez erabakiko dira. Akatsak zuzentzeko izapideak dirauen denboraren arabera, epe hori luzatu egingo da. Gehienezko epea ebazpenik gabe iragaiten bada, eskaera ukatutzak eman beharko da.

2. Horiek baimentzeko ebazpenetan zehaztuko dira kasu bakoitzaren eraginkortasunerako jartzen baldintzak.

Ebazpenean eskatutakoak barik beste epe eta baldintza batzuk finkatu daitezke.

3. Onarpen edo ukapenaren jakinarazpena eskatzailearen helbide fiskalera edo jakinarazpenetarako eman duen helbidera bidaliko da.

22. Artikulua. Geroratu edo zatikatutako kopuruak ez ordaintzearen ondorioak

Gerorapen edo zatikapenetan ezarritako epea betetzean zorra ordaindu ez bada:

- a) Borondatezko aldia aurkeztu bada eskabidea, aldi exekutiboari emango zaio hasiera.
- b) Eskabidea aldi exekutiboan auzetu bada ordaintzeko zorraren premiamendu-prozedurari jarraipena emango zaio.

IV. ZORREN KONPENTSAZIOA

23. Artikulua. Zorren konpentsazioa

1. Beste administrazio batzuen zorren konpentsazioa:

Beste administrazio batzuen zor irmo eta mugaeguneratuen kasuan – ez ditu eta zuzenbide pribatuak eraentzen- ez da premiamendu-prozedurarik izango. Zorra beste administrazioen alde egon daitezkeen kreditu irmoekin konpentsatzeko prozedurari jarraitu beharko zaio. Konpentsazioa dagokion diruzaintzako organoaren ebazpen bitartez egingo da eta erakunde zordunari aditzera emango zaio aditzera.

Haren alde krediturik ez egoteagatik konpentsazioa ezinezkoa bada, ordaintzeko errekerimendua egingo da, eta berori jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean ordaintzeko konpromisorik jasotzen ez bada, bestelako jarduketa batzuei ekingo zaie, administrazioarekiko auzibidean erreklamatzea barne.

2. Bestelako konpentsazioak

Diru-bilketa kudeatzeko prozesuan diren Udalarekiko zorrak zordunaren alde aitortutako betebeharrekin konpentsatu ahal izango dira, bai borondatezko aldian, bai exekutiboan.

Zorra borondatezko aldian badago, zordunaren eskariz egin beharko da konpentsazioa; berriz, aldi exekutiboan badago, ofizioz egingo da.

Dagokion diru-bilketa organoak ebatziko du konpentsazioa kasu bietan, eta zordunari jakinaraziko zaio.

24. Artikulua. Konpentsazioaren ondorioak

1. Konpentsazioa erabakitzean zor diren kopuruak eta kredituak iraungitzat edukiko dira.

2. Zuzenbide publikoko erakundeen zorrak konpentsatu behar direnean, kreditua zorra baino txikiagoa bada, kreditua gainditzen duen zorraren zatia eskuratzeko gerora erakunde horien alde aitortzen diren kredituekin konpentsazioak nola egin beharko diren erabakiko da.

3. Gainerako kasuetan kreditua zorra baino txikiagoa bada, diru-bilketa prozedurari jarraituko zaio kreditua gainditzen duen zor-zatiarengatik.

4. Zorra kreditua baino txikiagoa bada konpentsazioa erabakiz gero, kreditura arteko aldea ordainduko zaio interesdunari.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

V. PREMIAMENDU PROZEDURA

25. Artikulua. Premiamendu-prozedura

Borondatez ordaintzeko epea iragan ondoren zerga edo zuzenbide publikoko gainerako zorrak guztiz ordaindu ez badira, ordaintzeko dauden zorrak ordaintzeko aldi exekutiboa hasiko da.

Aldi exekutiboaren hasierak %5eko errenergua dakar eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitako berandutza-interesen zehaztapena.

Jakinarazitako zenbatekoa exekutibo aldiaren ordaintzeko epea iragan ondoren zorra ordaindu ez bada, errenergua %20 izango da.

VI. HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK

26. Artikulua. Hutseginak

Hutseginak dira ordaintzeko betebeharra edukita, frogatutako ordainezintasun egoeran egoteagatik zorra ordaindu ezin dutenak.

27. Artikulua. Kreditu kobraezinak

Zordun nagusia, erantzule solidario eta subsidiario guztiak hutseginak direla deklaratu ondoren, kobraezintzat ematen dira kredituak. Nolanahi ere, zordunak kaudimena berreskuratzen badu, berriro aktibatu daitezke kredituak.

VII. PRESKRIPZIOAK ETA IRAUNGIPENAK

28. Artikulua. Preskripzioak eta iraungipenak

1. Preskribatu edo iraungi egin daiteke zergen zorra zehazteko administrazioaren ahalmenaren egikaritza.

2. Preskripzioa eta iraungipena aldi berekoak izango dira, beraz, horietako bat gertatzen denean ezingo da burutu zergen zorra dagokion likidazioaren bitartez zehazteko administrazioaren ahalmenaren egikaritza.

3. Preskribatu egin daitezke baita ere likidatu edo autolikidatutako zorren ordainketa exijitzeko administrazioaren ahalmena eta ordaindu beharra dutenek zuzenbide publikoko diru-sarreraren arauditik eratorritako itzulketak, zor ez direnak eta bermeen kostua eskatzeko eskubidea.

4. Preskripzioak eta iraungipenak ezabatu egiten dute zorra, eta ofizioz aplikatzen dira, nahiz eta zorra ordainduta izan.

29. Artikulua. Preskripzioa

Zerga-zorren kasuan lau urtera preskribatuko da aurreko artikulua eta bigarren eta hirugarren ataletan aurreikusitako administrazioaren ahalmenaren egikaritzea; zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kasuan dagokien araudiak ezarritakoa bete beharko da.

Denboraren zenbaketa, etendura edo preskripzioaren beste eragin batzuetarako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzen duten gainerako xedapenei begiratu beharko zaie.

30. Iraungipena

Sei urtera iraungiko da ordenantza honen 28. artikulua eta bigarren atalean aurreikusitako administrazioaren ahalmenaren egikaritzea.

Denboraren zenbaketa, etendura edo etenduraren beste eragin batzuetarako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzen duten gainerako xedapenei begiratu beharko zaie.

VIII.ADMINISTRATIO BIDETIK BERRIKUSKETA EGITEA

31. Berraztertze errekurtsoa

1. Udal mailako zergak eta zuzenbide publikoko gainerako sarrerak aplikatzeko eta horiek eraginkorrak izateko ekintzen kontra berraztertze-errekurtsoa aurkezteak ez du inpugnatutako egintzaren exekuzioa etengo, ez eta ondorengo lege-ondorioak ere, kuota- edo eskubide-bilketa, likidatutako eskubideak, interesak, errekarguak eta zehapenak barne direla. Zerga-zehapenak ezartzeko egintzak, berriz, automatikoki etengo dira errekurtsoa aurkeztean.

2. Errekurtsoa ebazteko ahalmena duen organoak akats material, aritmetiko edo egitezkoa egon dela aurkitzen badu, prozedura inolako bermerik barik etetea erabaki dezake.

Hilabete egongo da berraztertze errekurtsoa aurkezteko. Epe hori berraztertze eskatu den egintzaren berariazko jakinarazpena hartu eta biharamunetik aurrera zenbatuko da edo, bestela, zergadun nahi ordaintzeko beharra dutenen errolda edo matrikulen erakustaldi publikoaren epea amaitu eta biharamunetik aurrera.

IX. ZEHAPEN-PROZEDURA

32. Artikulua. Zerga-ikuskatzailatza eta zehatzeko ahalmena

Zerga-ikuskatzailatza eta zehatzeko ahalmena egikaritzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta aplikagarri diren gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoari jarraituko zaio.

X. AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean sartzea



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZAKO ORDENANTZA

Honako ordenantza berau argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2025eko abenduaren 31ko 249 zk.an argitaratu eta gero, eta hala egongo da harik eta aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.